

Ingurune ekonomikoa

BPGda osagaien arabera. Aldakuntza tasa⁽¹⁾

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2006	2007	IV-2006	I-2007	II-2007	III-2007	IV-2007
Nekazaritza	-9,8	8,0	-5,3	8,2	11,5	2,0	10,8
Industria	4,9	3,8	4,6	4,9	4,6	3,7	2,3
Eraikuntza	5,1	4,0	5,0	4,5	4,4	4,3	2,9
Zerbitzuak	3,8	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2
Kontsumoa	3,9	3,6	3,8	3,8	3,7	3,4	3,3
KEG⁽²⁾	6,0	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8	4,5
Eskaria	4,5	4,2	4,4	4,5	4,5	4,1	3,7
Esportazioa	7,5	7,1	8,3	6,5	9,0	6,5	6,6
Inportazioa	7,7	7,3	8,5	7,0	9,2	6,7	6,4
BPGda	4,2	3,9	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6

Iturria: Eustat. (1) Bolumen kateatua. (2) Kapital eraketa gordina

2006koak baino txikitxoagoak dira. Kanpoko sektoreari dagokionez, esportazioek beren hazkundea zerbait azeleratu dute, aurreko hiruhilekoaren aldean inportazioetan, berriz, txikiagoa izan da (%6,5eko hazkundetik %6,6ra eta %6,7tik %6,4ra igaro dira hurrenez hurren). Honela, hirugarren hiruhilekoan hiru hamarreneko kenketa zuen kanpoko eskariak, batekoa du laugarrenean. Dena den, ekitaldi osoa kontuan harturik, kanpoko eskariak 2007an BPGdaren hazkundeari eragin dion ekarpen negatiboa aurreko ekitaldiko maila berean geratu da (-%0,3).


Eta eskaintzaren aldeari begiraturik, 2007ko laugarren hiruhilekoan bai lehen sektoreak eta bai zerbitzuek beren hazkunde erritmoa azeleratu dute (%10,8 eta %4,2, hurrenez hurren), eta industriaren sektoreak eta eraikuntzak, berriz, desazeleratzeko joera berean dira (%2,3 y %2,9 hurrenez hurren). 2007 oso kontuan hartuta, Sektoreetako hazkunderik handiena lehen sektorean gertatu da (%8). Industriaren hazkundea %3,8koa da, aurreko ekitaldiko %4,9aren aldean. Eraikuntza bere aldetik %4,4z hazi da aurreko urtean baino puntu bat eta hamarren bat gutxiago, alegia, zerbitzuek 2006ko aurrerapen bera izan dute (%3,8), merkatuko zerbitzuetako aurrerapena (%3,7) eta merkatukoak ez direnena (%4,3) desberdinak izan direla.

2007ko laugarren hiruhilekoan euskal ekonomia urteen arteko %3,6rainoko hazkundera heldu da, zenbakia, aurreko hiruhilekoan erregistratua baino bi hamarrenez txikiagoa delarik. Urtean zehar oro har, desazelerazio txikiko profila suma daiteke: hazkundera %3,9koa izan da, hau da, 2006koa (%4,2) baino txikixeagoa. Hala ere, hazkunde tasa hau Estatukoa (%3,8) baino hamarren bat handiagoa eta EB-27rako kalkulatu (2,9) baino puntu batez handiagoa da.

Barne eskariaren ikuspegitik azpimarra liteke 2007ko laugarren hiruhilekoan kontuan hartu diren sail guztiek beherako profila erakutsi dutela, inbertsioak batez ere (%4,5 2007ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko %5,8aren aldean). Hala, urtean oro har lortutako baloreak,

Enpleguaren egoera

Biztanleria aktiboa, landuna eta soldatkoa (EAE, milatan)




* Iturria: Eustat.

eraikuntzan eta zerbitzuetan, berriz, igo egin da (%2,1 eta %1, hurrenez hurren).

Aurreko hiruhilekoetan ikusi dugunaz bestela, 2007ko IV hiruhilekoan biztanleria aktiboak bere hartan dirau, aurreko urtearen aldean. Biztanleria landuna, berriz, %0,3az hazi da, (Estatuan oro har %2,4az), eta biztanleria langabea berriro ere jaitsi da (-%8,5), lanik gabeko 31.400 pertsona daudela. Honela, 2007ko laugarren hiruhilekoko langabezi tasa %3,1 izan da (2006ko aldi berean %3,4 izan zen). Erregistraturiko langabeziari dagokionez, IV. hiruhileko osoan urteen arteko %2,6az jaitsi da. Azkenik sektorekako analisiari erakusten duenez, 2007ko IV. hiruhilekoan, bai lehen sektorean eta bai industriakoan enplegu maila jaitsi egin da, aurreko urtearekin alderatuz gero (-%3,2 eta -%2,1, hurrenez hurren);

Soldatoko biztanleria kontratu motaren arabera (ehunekotan)




hiruhilekoan mugagabeko kontratazioa nabarmenki jaitsi da (-%29,3) eta aldi baterako kontratazioa, berriz, zerbait igo (%0,9), guztira erregistraturiko kontratazioa ere jaitsi egin delarik (-%2,6%).

Soldatoko biztanlerian urteen arteko aurrerapen txikia gertatu da (%0,1 2006ko laugarren hiruhilekoaren aldean) eta 801.100 pertsonetara heldu da. Haien %76,9ak kontratu mugagabea dauka, %20,2ak aldi baterako kontratua eta gainerako %2,9a kontraturik gabe eta beste egoera batzuetan dauden pertsonak dira. Hala, Aldi baterako kontratua duen pertsonen portzentajea nabarmenki hobetu da aurreko urtearen aldean (%20,2, aurreko %23,3aren ondoan). Hala ere, EINen erregistraturiko kontratazioari begiraturik, 2007ko laugarren

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboaren jarraipena
(EAEko negoziazio kolektiboak 607.071 pertsona ukitzen ditu)




- BERRIZTATU GABEKO HITZARMENAK:** Indarraldia amaitua duten eta aztertzen den hila arte berriztatu ez diren hitzarmenek ukitutako langileak. 369 hitzarmen dira.
- 2007 URTEAN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK:** 2007 urtean zehar erregistratu diren eta urte berean indarrean dauden hitzarmenek ukitutako langileak (hilero metatutako baloreak). 239 hitzarmen dira.
- AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK:** 2006ko abenduaren 31 arte erregistratutako hainbat urteko indarraldia duten eta 2007rako indarrean dauden hitzarmenek ukitutako langileak. 370 hitzarmen dira.

Iturria: Geuk egina, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren informazioan oinarrituta.

amaieran (adibidez siderurgian) lortutako akordioei esker, lurralde eremu hau berriztatu gabeko negoziazio zatirik txikiena duena da (%19,8a enplegu bidez adierazita). Beraz, hobekuntza orokorra dagoela ikus daiteke, batez ere sektoreko eremuan nolabaiteko desblokea gertatu delako, enpresako hitzarmenek atzerapena erakusten dutenez (eremu honetako %35,8a berriztatzeko daude): gauza bera gertatzen da EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetan. Akordioak lortzeko zailtasunak negoziazio prozesuen iraupenean ere ikus daitezke, sektoreko hitzarmenetan ia urtebetekoa izan dena (311 egun batez beste, mahaiak formalki eratzekoan batzuetan gertatzen den atzerapena aintzat hartu gabe). Edukiari dagokionez, azpimarratu behar da lege berriak bultzatzen dituen berdintasun planak atertzen hasi direla.


Itundutako soldata igoeren eta batez besteko inflazioaren bilakaera



Berriztatutako hitzarmenetan adostu den soldata igoera (langile kopuruaz haztatua) %4,23 izan da (Estatuan oro har %4,06), soldata berrikusteko klausulen ondoreak sarturik. 2006rako itunduriko igoeraren aldean (%4,42), hau txixixegoa izan dela aipa daiteke. Hau batez ere urteen arteko inflazioa jaitsi delako gertatu da, gehienetan iragandako KPIa hartzen baita erreferentziazat. Berriz ere, hitzarmen hauen babeseko pertsonen erosteko ahalmena handiagotu egin da, ekitaldi honetarako egiten diren inflazioari buruzko aurreikuspenen arabera ahalmen hori nahikoa jaitsi ahal bada ere. Eremu funtzionalen arabera, sektoreko hitzarmenetan itundutako igoera (%4,24) eta enpresakoetakoa (%4,20) oso antzekoak izan direla ikus daiteke. Beste alde batetik, igoerarik handiena lurralde arteko

hitzarmenetan gertatu da (%4,77), batez ere irakaskuntzako hitzarmenetan itundutakoagatik. EAEn erregistratutako hitzarmenetako soldata igoera %4,22 izan da eta EAEn eragina duten Estatuaren eremukoetan itundutakoa %4,29, soldata berrikusteko klausulen ondoreenagatik.

Hitzarmen kolektiboetan itundutako lanaldiaren murrizketak



(*) 2007-12-31 arte erregistratutako hitzarmenetan

Lanaldiari dagokionez, murrizketak ezartzen dituzten hitzarmenen portzentajea gero eta txikiagoa dela ikus daiteke. (berriztatutako hitzarmenen %29a). Ohi denez, murrizketa ituntzen duten hitzarmenen portzentajerik handiena EAEn erregistratutakoetan gertatzen da (%36,3), eta EAEn eragina duten Estatuako eremukoetan, berriz, portzentaje hori %15,5era jaisten da. Murrizketa bera (urteko 2,2 ordu) 2006an indarrean zeuden hitzarmenetakoa baino txikiagoa da eta orain dela urte batzuetakoak baino nabarmenki txikiagoa. Kontuan hartu behar da, hitzarmen asko berriztatu gabe daudenez gero, halako eremuetan normalean lanaldia bere hartan geratzen dela, hainbat kasutan aspaldiko urteetatik geratu ere. 2007rako berriztatu diren

hitzarmenetan itundutako lanaldia 1.690 ordukoa izan da: 1.694 sektoreko hitzarmenetan eta 1.671 enpresakoetan. Era berean, EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetan itundutako lanaldia nabarmenki luzeagoa da (1.711 ordu) EAEn erregistratutako hitzarmenena (1.684) baino.

Lan gatazkak

EAEn egindako lan grebak (behin-behineko datuak)

		2002	2003	2004	2005	2006	2007
ARA-BA	Grebak	41	38	41	36	57	40
	Partaideak	173.779	6.883	11.680	6.274	6.359	4.906
	Egunak	182.358	43.795	47.338	32.990	12.036	7.927
BIZ-KAIA	Grebak	94	118	116	85	109	87
	Partaideak	260.813	24.043	47.620	39.817	44.543	27.767
	Egunak	294.126	128.756	197.233	56.673	122.216	68.122
GIPUZ-KOA	Grebak	56	65	86	55	58	69
	Partaideak	169.626	43.868	41.758	7.025	11.675	13.670
	Egunak	182.344	167.315	361.584	16.525	34.181	35.926
EAE	Grebak	191	221	243	176	224	196
	Partaideak	604.218	74.794	101.058	53.116	62.577	46.343
	Egunak	658.828	339.866	606.155	106.188	168.433	111.975

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
Egunak: Lan egin gabeko egunak.

2007ko laugarren hiruhilekoan egin diren grebak gehiago izan dira 2006ko aldi berean egindakoak baino (%11,4 gehiago); grebetan parte hartu dutenak eta grebengatik gertatu diren lan egin gabeko egunak, berriz, gutxiago izan dira (-%22,7 eta -%62, hurrenez hurren). Greba kopuruaren igoera Gipuzkoan eta Bizkaian izan den bilakaera dela-eta gertatu dela nabarmen daiteke (hazkundera %75 eta %5,9koa izan da, hurrenez hurren), Araban grebak gutxiago izan baitira (-%33,3).

2007 osoan EAEn 196 greba erregistratu dira guztira, haietan 46.343 parte hartzaile eta lan egin gabeko 111.975 egun izan direlarik. Aurreko ekitaldiarekin aldeniduz gero, datuon arabera greba kopurua jaitsi egin da (-%12,5), baita grebetan parte hartu

dutenena (-%25,9) eta lan egin gabeko egunena ere (-%33,5).

Greba eragin duen kausari dagokionez, haien %55ak negoziazio kolektiboko desadostasunetan dute jatorria eta; azken aspaldian ohi denez, greba hauexek dute eraginik handiena: bertan sartu behar dira grebetako partaide guztien %78,4a eta urtean eragindako lan egin gabeko egunen %90,6a.

Egindako greba guztietatik 182 enpresakoak izan dira eta 14, berriz, sektorekoak, lan egin gabeko egunen %26a azken hauetan gertatu direlarik. Enpresako eremukoetan, %79,4a sektore pribatukoak dira eta eremu honetan izan diren lanik egin gabeko egunen %37a eragin dute. Beraz, ikus daitekeenez, sektore publikoan egin diren grebetan parte hartu dutenak gehiago izan direnez (17.956 partaide sektore publikoko grebetan eta 11.430 sektore pribatukoan), greba hauen eragina handiagoa izan da, argiro.

Gauzak lurraldeen arabera aztertuz gero, bai Araban eta bai Bizkaian lan gatazkak jaitsi egin direla ikusten da, eta Gipuzkoan, berriz, igo. Zehazkiago adierazita, Araban greba kopurua %29,8az jaitsi da eta Bizkaian ere %20,2ko jaitsiera izan da. Parte hartu dutenen kopurua, beste alde batetik, %22,8az jaitsi da Araban eta %37,7az Bizkaian, eta, azkenik, lan egin gabeko egunena %34,1ez eta %44,3az hurrenez hurren. Gipuzkoak, alderantziz, lan gatazkak oro har igo egin direla erakusten du: greba kopurua %19an, grebetan parte hartu dutenak %17,1ean eta lan egin gabeko egunak %5,1ean, alegia.

Enplegua erregulatzeko espedienteak

Euskal Administrazioak baimenduriko enplegua erregulatzeko espedienteak

	Espedienteak	Ukitutako langileak			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Amaiera
2002	211	5.650	21	3.331	2.298
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007	282	4.815	17	3.856	942


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

2007ko laugarren hiruhilekoan enplegua erregulatzeko espediente kopurua nabarmenki igo da (%65 kopuruz eta %52,9 ukitutako pertsonaz) 2006ko aldi beraren aldean. Espediente hauen %50a arrantzaren sektorean gertatu dira eta lan harremana aldi baterako eteteko ondorea izan dute; %32a industriaren sektoreari dagokio eta hemengo gehienetan ere enplegua aldi baterako etetea gertatu da, 199 pertsonaren kasuan ondorea kontratuaren amaiera izan bazen ere..

2007 ekitaldi osoa aintzat hartuz gero, EAEn guztira baimendutako enplegua erregulatzeko 282 espediente erregistratu ziren, espedienteok 4.815 langile ukitu zituztelarik. Zenbaki hauen arabera, 2006 urtearekiko igoerak %63 eta %44,2 izan dira, hurrenez hurren. Etetea eta murrizketa espedienteek ukitutako langile kopuruak (3.856 eta 17 langile, hurrenez hurren) igo direla adierazi behar da; amaiera espedienteek ukitutakoak, berriz, nabarmenki jaitsi dira (942 langile, hau da, -%42a, 2006ren aldean). Espedienteok eragin dituen kausari dagokionez, finantzazko eta eskarizko kausez bestelako batzuek eragindakoak kopurutsuenak izan dira (211 espediente eta ukitutako 3.228 langile), aurreko ekitaldiaren aldean igoera nabarmena izan dutelarik (%197,2ko igoera espediente kopuruan eta %121,1ekoa ukitutako pertsonetan). Eskarizko eta finantzazko kausek eragindako espedienteak nabarmenki jaitsi dira. Azpimarratu behar da espediente hauen % 58,2a (ukitutako enpleguaren %40,8a, alegia) lehen sektorean gertatu dela, antxoaren arrantzaren arazoekin lotuta, eta haien ondoreak, gehien-gehienetan enplegua aldi baterako etetea izan dela. Industrian espedienteen %24,1a gertatu da (ukitutako enpleguaren %49,7a), baina kasu honetan, 2.395 ukituetatik 730 kontratu amaierak izan dira. Eraikuntzan espedienteen %3,9a aurkitu ahal dugu (ukitutako enpleguaren %5a) ondoreak gehienetan aldi baterako eteteak izan direlarik, eta zerbitzuetan espedienteen gainerako %13,8a izan dugu, 213 pertsona ukituz (ukitutako enpleguaren %4,4a), haietako 128 aldi baterako eteteak, 82 enplegu amaierak eta 3 aldi baterako lanaldi murrizketak izan zirelarik.

Lan istripuak

Baja eragin duten istripuen aldakuntza (ehokotan) aurreko urtearekiko



Iturria: Osalan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte

2007ko laugarren hiruhilekoan lan istripuek izan duten bilakaera onuragarriaren ildotik (baja eragin duen istripua izan duten langileen kopuruaren murrizketa %11,1ekoa izan da), ekitaldi osoa ere istripuen murrizketa ia guztizkoarekin ixten da.

2007an baja eragin duten istripuak jasan dituzten langileen guztizko kopurua (49.443 pertsona) 2006aren aldean %8,1ez jaitsi da. Istripuok horrela banatu dira: lanaldian zehar 43.934 pertsona, *in itinere* 4.783 eta lan gaixotasunengatik 726. Aurreko ekitaldiaren aldean, zenbaki hauek dakartzaten hurrenez hurrenko jaitsierak %6, %3,9 eta %65 dira (jaitsiera hau, dena den, jakinarazpen sisteman izan diren aldaketei zor zaie).

Baja eragin duten lanaldiko istripua izan duten pertsonak sektoreka aztertzen baitugu, sektore guztietan dinamika onuragarria izan dutela ikusiko dugu. Hala, jaitsierarik

handiena arrantzaren sektorean gertatu da: 916 pertsonak izan dute istripua (-%12,3). Ondoren eraikuntza dator, han 7.963 pertsonak istripua izan baitute (-%8,6). Jarraian zerbitzuen sektorea agertzen da, istripua jasan dutenak 17.099 izan direla (-%6,5). Azkenik, murrizketarik txikiena industriaren sektorean gertatu da: 17.956 pertsonak izan dute istripua (-%3,9). Lanaldiko istripuen larritasunari dagokionez, bai istripu arinek ukitutako pertsonak (43.548) eta bai istripu hilgarriak (hildako 51 pertsona) jaitsi egin dira (jaitsierak %6,1 eta %1,9koak izan dira hurrenez hurren); istripu larria izan dutenak, berriz (335), igo egin dira (%4).

Lan istripuen bilakaera onuragarri hau enplegua hazten ari den ingurune batean gertatu da eta, hala, lan istripuen eta biztanleria landunaren bilakaerak elkarrekin konparatzen badira, eragina beherantz doala ikus daiteke. izan ere, 2007an lanaldiko 45,5 istripu gertatu dira mila landun bakoitzeko (2006an 49 izan ziren). Sektorekako analisisaren beherantzko joera hau orokorra dela ikusten da: lehen sektoreko indize hau mila landuneko lanaldiko 76,7 istripura heltzen da (83,4 2006an), industriaren sektorean 73,1 dira (2006an 76,4 izan ziren), eraikuntzan 95,3 (2006an 107,9) eta zerbitzuetan 27,4 (29,7 2006an). Dena den, , lan istripuen bilakaera onuragarri honen ondoan, urtean zehar lanaldian 51 hil direla aipatu behar da, 335 pertsonak ere istripu larria izan dutelarik.